

TXISTULARIAK MUNGIA'N

Aurtengo urrillaren 18' an Mungia'n giro bizi-bizia zomau dogu eta aspaldion baiño txistu-soiñu geiago entzun. Orregaitik, arlo onetan arduradun dan Madariaga'tar Gotzon' egaz alkar-izketa egin dogu barriak zeatzago ta garbiago, iturritik, artzeko.

Guk: Egunon, Gotzon! Urrillaren 18'an Mungia'n giro alaia ta txistu-soiñuak ugari izan doguz. Esan egiguzu ze jai izan zan.

Gotzon'ek: Urtero ospatzen da non edo an Bizkai'ko Txistularien eguna eta aurten emen ospatu dogu egun aundi ta eder ori.

10'etan alkartu ziran Bizkai'ko txistulariak, 10 1/2'eta ensaioa izan zan, 12'etan lau taldek egin eben kalejira, ordu 1'etan eres-aldia emon eben eta ordu 2' etan barkaria.

Guk: Nongoak etorri ziran?

Gotzon'ek: Bizkai guztikoak. Erri batzuk esango dodaz, naizta batzuk aiztuta izteko arriskua izan: Bilbao, Portugalete, Sestao, Barakaldo, Getxo ta Uribe Kosta osokoak, Orduña, Motriku, Ondarroa, Bermeo... Durango'tik ezin etorri izan ziran bertan ziralako San Fausto-jaiak eta euren zeregiña euken.

Guk: Goi-maillako arduradunak be etorri ziran?

Gotzon'ek: Bizkai'ko Txistulari alkartearen Lendakaria egon zan. Aurre'tar Anton be bai, baiña au txistulari lez etorri zan: Gero erriko alkatea ta Kulturako Ziñegotzia.

Guk: Zein da zure eritxia jai oneri buruz?

Gotzon'ek: Lenengo, egualdi ederra izan zan. Aspaldion olako gitxi izan doguz. Gero errian pozgiroa agiri zan, pozgarria da, izan be, 150 txistulari euren lan ederra egiten ikustea ta eurai entzutea. Gaiñera jai-egun au ederto antolatua izan zan. Txistulariak eurak be pozik ibilli ziran. Danontzat izan egun egun pozgarria.

Guk: Gatozen orain, Gotzon, erriko txistulariengana. Emen zenbat zarie, zelan zabiltze, ba-daukazue laguntzarik?

Gotzon'ek: "Gure ametsa" dau izena erriko taldeak. Ni baiño lenago arlo onetan Paulin abadea ibilli zan irakasten, beste batzuk be lagun ebazala, eta gero talde au legetu egin bear zan eta 1957' an sortu zan Mungialde'ko Txistularien Gure Ametsa Taldea. Guztiz 40 inguru dira ikasten diarduenak.

Gure laguntzailleak Udal-Batza, ta Lankide, Aurrezki Kutxa izan dira.

Kultur-Etxean egiten doguz batzarrak eta Udaletxearen Eres-Leku edo "Konserbatorioan" ensaioak, urte guztiko larunbatetan.

Laguntzak ba-doguz, baiña dana-bearrean gabiltz, nasaitasun aundi barik.

Guk: Zeintzuk dira zuen eguneroko ekintzak?

Gotzon'ek: Jai eta igande guztietan kalejira egiten dogu goizeko amaikak inguruan. Au Mungia'n antxiñako oiturea da, bear ba'da berreun bat urte izango dira asi zala.

Guk: Gure erritik kanpora zelan dago txistuaren arazoa?

Gotzon'ek: Erri-maillan ez da ikusten lengo beste zaletasun txistua entzuteko. Or bizitasuna galdu egin dala dirudi, baiña txistulariak eta ikasleak iñoz baiño geiago dagoz. Egun onetan 160 inguru etorri ziran, asko gazteak.

Egun onetan emon genduan eres-aldian entzule asko izan ziran. Erriak erantzun eban, baiña urtero izaten dan eres-aldian entzule gitxi izaten doguz: txistularien adiskideak eta senideak, asko geiago ez.

Guk: Amaitzeko, zerbait geiago, Gotzon?

Gotzon'ek: Ez dogu aitzu bear, egun orretan emen 35 urtetan txistulari izan dan Luis Gonzalez'eri omenaldia egin jakola eta neuk be 40 urte daroadaz lan onetan eta omenaldia izan neban: Bizkai'ko Txistulari-Taldeak plaka bat emon euskun, Udaletxetik beste bat, eta emengo Txistulariak eta Bermeo'koak be bai.

Olako omenaldia artzen danean, esan lei zarrak garala eta baztertu egiten gaituela, baiña ori ez da orrellan. Gu aurrera goaz lanean.

Bazkaltzen 225 maikide izan giñan.

Urtero egiten dan jai au datorren urtean Nerbion ibaiaren ezker-aldeko erriren baten izango da.

Olako egun bat eratzeak lan aundia emoten dau, baiña izan dan lez, ondo urten ezker, pozgarria be bada.

Ezin amaitu alkar-izketa au guztiai esker ona agertu barik, eta ez gitxien Erriko Alkateari ta Udal-Batz osoari. Kalejira egitean be taldeakaz joan ziran udaltzaiñak eta ekintza batzutan alkate jauna bera be gugaz izan zan.

Guk: Zorionak Gotzon Mungia erriari emon dautsauen pozaldi aundiagaitik, zorionak artu dozun omenaldiagaitik eta eskerrik asko barri guztiak ain zeatz eta argi emon dozuzalako. Eskerrik asko eta ekin lanari.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK